

Hasteko, esan nahi genuke herritarrentzako txanda honetara Adurtzakoak auzo-elkartekoak etorri garen arren, Hegoaldekoak auzo-elkarteak ere babesten duela irakurriko dugun testua.

Gaurko osoko bilkura honetan, zenbait datu entzun ditugu hegoaldeko auzoek aspalditik salatzen duguna agerian uzten dutenak, alegia, Olarizuko osasun-zentroa gainezka dagoela. Horixe bera salatu genuen 2022ko martxoaren 7ko auzogunean, eta orduko hartan ere datuak aipatu ziren. Auzogune horren ondoren, zenbait elkartetako ordezkariak Arabako ESIko arduradunekin bildu ginen, eta datu gehiagorekin erantzun ziguten.

Gu gaur ez gara datuez arituko; guk osasun-zentroko erabiltzaileok egoera nola bizi dugun azalduko dizuegu, hots, gure egunerokotasunaz, gure errealitateaz, hitz egingo dizuegu.

Y la realidad es que, si te vas a sacar sangre a las ocho de la mañana, te encuentras con una larga cola de gente en la calle esperando a que abran

el centro. Una vez dentro, toda esa gente se apelotona en un estrecho pasillo, mientras espera a ser atendida. Pasillo que queda bloqueado para acceder a las consultas, a las salas de enfermería, al almacén...

Y la realidad es que esa cola de gente, a veces, se junta con la de quienes están esperando a ser atendidas en administración y bloquea la zona de entrada al centro.

Eta eguneroko kontua da ilara horretan itxaroten duzun bitartean telefonoa jo eta jo entzutea, administrazioko langileek ez dutelako hartzeko astirik ere.

Eta eguneroko kontua da hitzordua eskatzeko deitzea, webgunean eman dizutena astebete barrurako delako eta, gainera, telefono bidezkoa, eta deitu eta deitu aritzea eta inork telefonoa ez hartzea.

Eta eguneroko kontua da egun horretan bertan profesional batek ikustea behar izatea, adibidez, laneko baja behar duzulako, eta osasun-zentrora hurbildu behar izatea hitzordua eskatzera, zauden bezala egonda, edo

hitzordu bat kudeatzeko norbait bidali behar izatea.

Eta eguneroko kontua da administrazioko langileei zure arazoa zein den kontatzen diezun bitartean zain dauden guztiek zure bizitza pribatuaren xehetasunak entzutea.

Y la realidad es que, cuando por fin consigues cita presencial, y llegas al centro, tienes que atravesar colas de gente, llegar a la sala de espera por pasillos estrechos, donde si tú vas con un andador y te cruzas con un carro de bebé, se produce un atasco.

Y la realidad es que, una vez superados todos esos obstáculos, cuando llegas a la sala de espera, puede que no tengas sitio ni para sentarte, porque hay un montón de gente en un espacio muy reducido y, además, sin luz ni ventilación natural.

Y la realidad es que puede que llegues a la consulta y tu profesional de referencia no esté, por enésima vez, y tengas que volver a crear un nuevo vínculo de confianza con la persona que

te va atender esta vez, además de volver a tener que explicarle todo lo que te pasa.

Eta eguneroko kontua da pediatria batek zure alaba edo semea ikustea behar izatea eta zure erreferentziazko profesionala ez egotea, bat-batean gaixotu delako eta zentroan ez dagoelako beste pediatarik umeak artatzeko, edo oportretan dagoelako edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan dagoelako eta ez dutelako ordezkatu.

Eta eguneroko kontua da gaixotasun mentala diagnostikatu dioten adineko pertsona izanik ingurune ezezagun batean moldatzea kostatzea eta osasun mentaleko hitzorduetara Salbururaino joan behar izatea eta, beraz, beste pertsona batzuen laguntza behar izatea.

La realidad es que no podemos hablar en primera persona de cómo vive el día a día el personal sanitario del centro, pero las conversaciones que hemos tenido con médicas y enfermeras hablan de falta de tiempo, de salas compartidas por falta de espacio, falta de personal, falta de especialidades, cupos de

pacientes demasiado elevados debido a las características de la población a la que hay que atender etc.

Así es cómo vivimos el día a día las personas usuarias del centro de salud de Olárizu, y la realidad es que cada uno de estos problemas, de manera aislada, podrían no suponer un gran trastorno, pero el conjunto de todos ellos y la frecuencia con que suceden, hacen que la situación sea insostenible. Más aun teniendo en cuenta que la Atención Primaria es la más cercana a la ciudadanía y es la que fomenta actividades que promocionan la salud y previenen la enfermedad, tal como señala la Organización Mundial de la Salud, que dice que “los centros de salud son la piedra angular de un sistema de salud sostenible que permite lograr una salud universal”.

Horregatik, hegoalderako osasun-zentro berri bat sortzeko eskaera babesten dugu, eta uste dugu auzo guztietatik ahalik eta hurbilen dagoen lurzati bat, garraio publikoaren bidez ondo komunikatua, eta ingurune osasungarri

batean dagoena aurkitzea oso urrats garrantzitsua dela zentro hori errealitatea izan dadin.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Olarizuko osasun-zentroko profesionalei, egiten duten lanagatik, bai eta aldarrikapen honen alde urte luzez lanean aritu diren gizarte-kolektiboari ere.